'Zentzumenen zoramena' egin zen atzo Zarauzko Talai Berri txakolindegian zenbait idazlerekin. :: LUSA

Literaturiak egitarau oso betea proposatzen du astebururako

Anjel Lertxundik irekiera-hitzaldia egingo du gaur, eta hura bukatutakoan 'Porto' ikuskizuna eskainiko dute Canok eta Mursegok

:: DV

DONOSTIA. Anjel Lertxundik egingo du gaur, 19:30ean Modelo aretoan, Zarauzko Literaturiako irekiera-hitzaldia. Ondoren, 20:00etan, 'Porto' ikuskizuna eskainiko dute toki berean Harkaitz Canok eta Mursegok. Asteburuko liburu-azoka izango da Literaturiako ardatzetako bat –Zigordia plazan egingo dena–, baina horrez gain egitarau zabala dago, era askotako ikuskizunekin. Horietako batzuk ordaindu beharrekoak dira eta antolatzaileek bonoa sortu dute, 12 euroan banatzen ari dena.

Jakina denez, ardoa da Zarauzko bigarren Literaturia honetako leitmotiva. Harkaitz Canok eta Mursegok Portoko ardoa ardatz hartuta sortu dute gaurko ikuskizun hau. Bestalde, bihar arratsaldeko 7etan Edorta Jimenezek 'Mormoien bisita (Nora Barnacleren omenez)' saioa emango du, AurresQ danzta-taldeak lagunduta. James Joyce eta haren maitale Nora Barnacle ekarriko ditu gogora. «Joycek ardo zuria edaten zuen, bere azken urteetan botila pare bat egunero, eta Norak etxera eramaten zuen», azaldu zuen Jimenezek Literaturiaren aurkezpenean.

Hori baino lehenago, bihar 12:00etan 'Erractus' ikuskizuna eskainiko dute. Danele Sarriugarteren 'Erraiak' nobela eta Jule Goikoetxearen 'Tractatus' poema liburua ditu oinarri nagusi emanaldi horrek, eta bi liburuen egileekin batera Kattalin Minerrek jardungo du. Gero, arratsaldeko 5etan, Hala Bedi irratiko 'Celosamente Gordea' saioko kideek 'Ardoa eta Odola (Wino I Crew)' ikuskizuna emango dute, Jim Jarmuschen 'Dead Man' filma bidelagun hartuta, Napoka Iria eta Joseba B. Lenoir musikarien laguntzarekin.

Igandean ere izango da ikuskizunik eta bestelakorik. Adibidez, Itxaro Bordak Itxaso Gutierrez musikariaren laguntzaz emango du errezitala, arratsaldeko 5etan, eta aurretik, eguerdiko 12:30ean, Arantxa Urretabizkaiak, Karmele Jaiok eta Arantxa Iturbek «literaturaz eta bizitzaz, eta baita ardoaz ere» jardungo dira mahai-inguruan.

Gainera, liburu berrien aurkezpenak egingo dira Garoa dendan; besteak beste Kepa Altonaga, Koldo Izagirre, Gerardo Markuleta eta Joxemari Iturralderenak.

Ertzain-burua, gatazka ekologikoa eta emakume misteriotsuaren kasua

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Oier Santosek (Errenteria, 1982) bere bigarren nobela plazaratu du: 'Txanpaina, mesedez'. Ekologia eta beronen inguruko gatazkak dira istorioaren ardatzetako bat. Bi plano agertzen dira: batetik, Markel Aizpurua ertzain-burua protagonista nagusia duen planoa; bestetik, polizia honen bikotekideak egiten duen kontaketa intimoa dago. Bizitza bikoitza daukan emakumea da, bata guztiek ezagutzen dutena, bestea ezkutukoa.

Oier Santos.

Argumentuari dagokionez, hasieran, hainbat auto berdez margotuta agertzen dira hirian. Ematen du protesta modu bat dela. Gero, lehergailu bat zentral termiko batean, hedabideetan albiste aldrebestuak, prentsarekin borroka... Gatazka horiek gutxi balira bezala, etxean ere egoera desatsegina dauka Markel Aizpurua ertzain-buruak. Emazteari zerbait gertatzen zaio. Oso portaera misteriotsua dauka. Bizitza pribatua gainbehera datorkio Markeli eta, gainera, euskal gizartea talde terrorista berri baten mehatxupean ageri da. Ez zaio erronkarik falta.

Euskal Herrian eta gaurko garain dago kokatua istorioa. Oso bukaera ezustekoa omen dauka. Aurretik, duela hiru urte, 'Ez zuten erantzun' izenburuko eleberria zeukan plazaratua Santosek, oso bestelako istorioa, unibertsitate giroko gazte batzuen gainekoa baitzen.

«Asko disfrutatzen dut literatura idaztean», adierazi du Oier Santosek aurkezpen-ekitaldian. IVEF eta irakasle-ikasetak egin zituen eta Bilbo aldeko institutu batean egiten du lan.